



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-03-13**

VIII. URTEA 1.951. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



E.MAIZ

XABIER ARTOLA ZUBILLAGA IRAKASLEA

«Zerbait idatzia baldin badaukat, orduan hasten naiz lehiaketarik baden begiratzeko»

ALKIZA Euskarazko ipuin lehiaketan Donostia Hiria Saria eskuratu du 'Deception Island' ipuinarengatik; Alberdaniak kaleratu du lana 4

Nafarroan euskarak bizi duen «zapalkuntza» salatu dute ezker abertzaleko hautetsiek

LEITZA Xabier Zabalo alkateak euskara zerbitzuak «kolokan» daudela eta Euskararen Legearen helburua hizkuntza «zokoratzea» dela esan du 6

Basamortuak protagonista Amalur jardunaldietan

TOLOSA Astelehenean hasiko da ekimena eta hilaren 26an bukatuko da; Topic-en izango da 3

la milioi erdi euro jasoko ditu Udalak Estatu Fondotik

IBARRA Argiztapen publikoan, hezkuntzan eta udaletxean zenbait aldaketa egingo dituzte 6

PINKI ETA BOP PEACHY JOKE-EKO TALDEKIDEAK

«Estilo zaharra darabilgu baina gaur egungo soinuarekin nahastuta»

MUSIKA Tolosako boskoteak disko berria kaleratu du, 'Kindergarten's Flight' 7



HITZA

Hip hop doinuak eta 'sound system' a oinarri dituen musika, gazteentzat

Kultura » Ahoz Aho Jaialdiaren baitan Aritz Sound Sistem, Maisha MC eta Invert musikarien saioa izango da Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Ahoz Aho Jaialdia azken txanpara iritsi da. Hitza adierazteko eta komunikatzeko erabiltzen duten hainbat eta hainbat artista igaro dira Tolosako eszenatokietatik. Gaur, Asvinenean ospatuko den Ipuin Txikien Galan agurtuko dute hurrengo urtera arte.

Gaur hainbat saio izango dira, eta horietako bat gazteei bereziki zuzendua. *Sound system* doinuak zabaltzeko asmoz datoz Tolosara Aritz Sound Sistem, Maisha MC eta Invert.

18:00etan hasiko da saioa. Aritz Sound Sistem arduratuko da kantuan oinarria eta erritmoa jartzeaz, eta Barakaldoko bi musikariek abestu egingo dute. Hernaniarrak azal dutakoaren arabera, bi zati izango ditu emanaldiak. Hasteko, Maisha MC nahiz Invert-ek be-



Maisha eta Aritz Sound Sistemek kilometroetan eskainitako emanaldiaren irudietako bat. HITZA

raien kantuak aurkeztuko dituzte. Lehendabizikoa, bere aurreneko diskoa prestatzen ari da, eta bigarrenak berriz, dagoeneko kalean du lan bat.

Bigarren zatian, ikus-entzuleen parte-hartzea bilatuko dute. Musika egiteko eta inprobisazioa lantzeko zenbait joko proposatuko dituzte. Inprobisazioa oinarri izango

du biharko saioak. Izan ere, abeslariak, kantuaren letrak bat-batean asmatu beharko dituzte, eta aldi berean, Aritz Sound Sistemek jarritako oinarrietara egokitu. Ikus-entzule pasiboak izan beharrean, gazteak parte-hartzera gonbidatu nahi dituzte, bihar Tolosara datozen artistek.

Hip hop-a kultura bat, eta gau-

zak adierazteko modu bat bezala ikusten dute musikariek. Horren baitan adar ezberdinak daude, eta horietako bat da rap-a. Bertan, ideia bat proposatu eta horren gainean kantu bat osatzen dute abeslariak. Hori da biharkoan egingo dutena.

Hernaniokaren esanetan, «Euskal Herrian kontzertuetara ohitu-

» EGITARAUA

Martxoak 13, gaur

■ **11:30.** Kandelen argipean taldearen emanaldia Bonberenean izango da.

■ **18:00.** *Ahoz-ahip-ahoz-ahop* emanaldia Tolosako Kultur Etxean izango da. Aritz Sound Sistem, Maisha MC eta Invert izango dira bertan.

■ **19:30.** Tolosako San Esteban auzoan AC Herrerros *Ana Griot*-en eta Jhon Ardilaren emanaldia izango da.

■ **22:30.** Ahoz Aho Jaialdiari amaiera emateko Ipuin Txikien Gala izango da Adunan, Asvinenean.

ta gaude, eta hauetan, emanaldia gutxi gorabehera antolatuta egoten da, baina guretan, ideia orokor bat baldin badugu ere, saioaren arabera, aldatuz joaten da».

Duela bost urtetatik hona hip-hop eta *sound system* gero eta gehiago ari da zabaltzen Euskal Herriko txokoetan. Gainera, arlo ezberdinetara ari da egokitzen eta moldatzen. Horren adierazle dira, bertsoarekin eta trikitiarekin lotuta, azken denboraldian egin diren proiektu ezberdinak. Hori ez ezik, teknologia berriei eta interneti ere eskertu behar zaio egindako lana.

Tolosa Kup txapelketa antolatzeko bilera egingo da asteartean

Areto futbola » Aurtengorako prestatu duten egutegiaz eta arautegiaz mintzatuko dira hilaren 16ko bilkuran.

ERREDAKZIOA

Futbol zaletuak 2010eko Tolosa Kup txapelketa prestatzen hasi dira jada. Hori dela eta, antolatzailerak bilerara deitu dute datorren astearterako. 18:00etan Kultur Etxean izango da bilkura. Bertan arautegiaz eta egutegiaz hitz egingo dute.

Antolatzaileraren arabera, lehendabiziko proposamena ondorengo da, apirilaren 13an zozketa egitearena. Honez gain, taldeek izena emateko orri bat prestatu dute, eta behin behineko arautegia. Horren arabera, talde bakoitza gutxienez bederatzik jokalariz osatua egongo da, eta partiden iraupena 40 minututakoa izango da. Bestalde, izena emateko 16 urte baino gehiago izan behar dituzte interesatuek. Gainera, 18 urtetik beherakoek gurasoen baimen bat aurkeztu beharko dute. Asteburu bakoitza talde batek antolatuko du, eta arbitrajea iaz bezala egingo da.



Espainiako Txapelketan, Boi Taullen jokaturako probako uneetako bat. HITZA

Espainiako finalean da Beñat Murua

Eskia » Herrialde Katalanetako txapelketan lortutako emaitza onen ondorioz, Espainiakorako sailkatzea lortu du.

ERREDAKZIOA

Herrialde Katalanetako Txapelketako azken jardunaldia jokatu zen pasa den asteburuan, Espoteko eski pistetan (Gran Pallars). Bertan Tolosako bi gaztek hartu zuten parte, Laiotz eta Beñat Murua, hain zuzen ere.

Larunbatean, slalom probak jokatu ziren eta bertan lehiatu zen Laiotz Murua. Igandean berriz, erraldoien modalitatean korritu zuen. Lehendabizikoa 18. sailkatu zen, eta bigarrenaren, 26. Lortutako postu onei esker, Espainiako Txapelketako finalean parte hartzeko aukera du. Hau, hilaren 22tik 24ra bitartean jokatu du La Molinan.

Beñat Murua hasiberria da oraindik ere txapelketetan, baina hala eta guztiz ere, emaitza onak lortu zituen. Tolosarra gutxigatik ez zen sailkatu.



Bergaran lehiatu ziren Tolosaldea IKTKo igerilariak. HITZA

Josu Agirre igerilari onena Gipuzkoakoan

Igeriketa » Absolutuetako txapelketa jokatu da Bergaran; zortzi urrezko domina irabazi dituzte bertan eskualdekoek.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako absolutuetako txapelketako jardunaldiak jokatu ziren joan den asteburuan Bergaran. Junior eta infantil mailakoak lehiatu ziren bertan, tartean hainbat Tolosaldeko Igeriketa Kirol Taldekoak. Hauek, emaitza oso onak lortu dituzte bertan. Izan ere,

zortzi probatan irabazle izan ziren berriak. Beste hamabitan, zilarrezko dominak erdietsi zituzten, eta beste hamaitan, hirugarren geratu ziren.

Txapelketako marka onenaren saria ere banatu zen Bergaran, eta hau tolosar batentzat izan zen, Josu Carrerarentzat, hain zuzen. 400 metro estilokoan eta 100 askeetan garaile izan zen.

Erreleboetan Tolosaldeko neskek garaile izan ziren, 4x200 askeetan eta azpitxapeldun 4x100 askeetan eta 4x100 estiloetan. Mutilek bigarren postua lortu zuten errelebo guztietan.

Basamortua izango dute ardatz, aurtengo Amalur jardunaldiek

Gizartea » Tolosako Ekinbide Etxeak antolaturiko ekimena hilaren 15etik 26ra izango da Topic-en.

INIGO TERRADILLOS

Ekialdeko Afrikan, Nepalen, Artikoan eta Amazonian zehar bidaia-tu ostean, basamortuetara gerturatu gaituzte aurtengo Amalur jardunaldiek. Tolosako Ekinbide Etxeak antolaturiko ekimena datorren astelehene hasiko da, eta ohi bezala, «bidaien bidez, paisaiak, kulturak, historia, pertsonak eta herrialdeak ezagutzera izango du helburu».

Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan eskainiko dituzten tailer, ikus-entzunezko eta hitzaldiekin, basamortu desberdinak ezagutu ahalgo dira, euren desberdintasunak jakin edota bertakoak nola bizi diren ikusi. Hasiera batean Saharako basamortua hartu nahi zuten oinarri bezala, eta bertako beste ikuspegi bat ezagutaraztea zuten helburu. Baina azkenean Saharakoaz gain, beste hainbat basamortu ere hartuko dituzte kontuan. «Interesgarria iruditu zitzaigun Sergio Fernandez tolosa-

rraren bizipenak gurera ekartzea, hainbat basamortu igaro baititu bizikletaz; halaber, Cristina Moratoki idatzi berri du liburua Ekialdeko bidaiarien inguruan, eta hori ere polita iruditu zitzaigun jardunaldien barruan sartzeko, beraz, azkenean zabaltzen joan gara egitaraua», azaltzen du antolaketa taldeko Kike Zinkunegik.

Ekitaldi ugari

Lehendabiziko ekitaldia astelehenean, hilaren 15ean, hasiko den tailerra izango da. Mikel Arredondok bidaia bat geure kabuz antolatzeko gakoak emango ditu.

Sergio Fernandez tolosarrak hilaren 17an emango du desertuetan eginiko bidaien berri berak eginiko dokumentalaren bidez. Bestalde, hiru hitzaldiak hilaren 24tik 26ra izango dira. Basamortuetako bizi-modua ederki ezagutzen duten bidaiariek euren ezagutza eta bizipenak kontatuko dituzte.

Antolatzaileek jardunaldietan parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrik: «itxi ditzagun begiak eta goazen irudimenaren eskutik amestutako basamortu horietako batera; horrela entzungo ditugu haien ahotsak, basamortuak etengabe hitz egingo baitio entzuten dakienari».



Munduko hainbat deserturen inguruan mintzatuko dira. HITZA

» EGITARAUA

Tailerra

- **Zer.** *Nola antolatu bidaia?*
- **Hizlaria.** Mikel Arredondo.
- **Noiz.** Hilaren 15, 16, 22 eta 23an. 19:00etatik 21:00etara. 8 ordu denera.
- **Hizkuntza.** Euskara.
- **Izen-ematea.** 687 07 4110 (Kike). 20 euro.

Ikus-entzunezkoa

- **Zer.** *7 desierto en bicicleta y en solitario* (7 basamortu bizikletaz eta bakarrik).
- **Egilea.** Sergio Fernandez.
- **Hizkuntza.** Gaztelania.

- **Noiz.** Hilaren 17an, 20:00etan hasita.

Hitzaldiak

- **'Basamortu biziak?'** Ander Izagirrekin (euskaraz). Hilaren 24an, 20:00etan.
- **'Nomadas: el horizonte como morada'** (Nomadak: zeruertzaz bizileku bezala). Josep Maria Palaurekin (gaztelaniaz). Hilaren 25ean, 20:00etan.
- **'Grandes viajeras por Oriente'** (Ekialdeko bidaiari handiak). Cristina Moratorekin (gaztelaniaz). Hilaren 26an, 20:00etan.

«Bidaiariak ez badaki egonaldiari probetxu ateratzen ez du bidaia on bat egingo»

MIKEL ARREDONDO » Bidaiaria

Bidaia » Astelehenean hasita, 'Nola antolatu bidaia?' tailerra emango du Topic-en, Amalur jardunaldien barruan.

I. TERRADILLOS

Aurtengo Amalur jardunaldietako lehen ekitaldia Mikel Arredondok gidatuko duen tailerra izango da. Abentura bidaia prestatzen ikasiko dute parte hartzen dutenek.

Nola osatuko duzu tailerra?

Nik nire esperientzia kontatuko dut, eta horretan oinarrituko naiz. Bidaiatzeko mota desberdinak ikusiko ditugu, eta era independentean nola bidaiatu daitekeen ikasiko dugu. Horretarako oinarriko kontzeptuak landuko ditugu bi multzotan banatuta: batetik, alde teknikoaz aztertuko dugu, hau



HITZA

da, hegazkinek txartelak, bisak, osasunari dagozkion jarraibideak edota dirua bezalakoak. Bestetik, bidaiaren diseinua nola egin ikasiko dugu; hori dokumentazioaren atala bete dugunean egingo dugu,

eta bidaiatzera goazen lurraldean zer ikusi, non lo egin eta nola mugitu bezalakoak hartuko ditugu kontuan. Hau guztia tailerreko parte-hartzaileen artean taldetan banatuta egingo dugu, talde bakoitzak bere bidaia prestatuko duelarik.

Nolan hasi zinen jendeari bidaia nola antolatu erakusten?

Hainbat bidaia egin ditut, eta esperientzia jasoz joan naiz. Pixkanaka konturatu naiz bidaia prestatzea eta norbere kabuz ibiltzea ez dela hainbestera. Jendeak askotan gogoan izaten du bidaiari egiteko, baina azkenean ez da ausartzen, eta hori aldatzearren hasi nintzen tailer honekin. Bidaiak prestatzea dirudiena baino errazago dela ikusarazi nahi nuen.

Egin dituzun etatik zein bidaia gogoratu duzu bereziki?

Paras den udan Afrikatik bueltatu nintzen, han urtebete igaro eta

gero. Agian azkena izan delako oroitzen dut, baina bidaia ugari egin ditut, eta guztiak izan dute zerbait berezia.

Zer izan behar du bidaia batek berezitateko?

Lekua, kultura edota unea oso politak izan arren bidaiariak ez bada ki horri probetxu ateratzen alferrik izango da. Askotan urrutira joan gabe bidaia oso ona egin dezakezu, eta beste batzutan faktore guztiak aldekoak badira ere, ez da bidaia ona izango. Bidaiariaren araberakoa da.

Nora egingo duzu hurrengo bidaia?

Afrikan urtebete igaro ondoren, orain Bilbon nago lasai-lasai. Ez dut ezer zehatzik buruan, baina lehenago edo geroago egingo dut bidaiaren bat. Aukeraketa bat egin behar nuke, baina gustura joango nintzateke Siberia aldera.

K Kirol jarduera

Gaur, larunbata

Areto futbol

- Usabalgo beheko kantuan, infantil neskak, 09:30ean.
- Usabalgo beheko kantuan, jubentilak, 11:00etan: Laskorain - Erain.
- Usabalgo beheko kantuan, 16:00etan: Tolargi - Zaldibia.

Eskubaloia

- Usabalgo beheko kantuan, kadeteak, 12:00etan: Tolosa - Leizaran.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, emakume kadeteak, F-8, 09:30ean: Tolosa CF - Intxaurdi.
- Usabalgo futbol zelaian, Infantilak, 11:00etan: Tolosa CF - Antigua.
- Usabalgo futbol zelaian, infantil txikiak, 12:30ean: Tolosa CF - Aretxabaleta.
- Berazubini, 16:30ean, Lurraldeko Ohorezko Maila: Tolosa CF - Euskalduna.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantuan, infantil neskak, 09:00etan: Mende TAKE - Easo.
- Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean. Infantil mutilak: Ego TAKE - TAKE Ori; kadete mutilak: Aurrera TAKE - Internacional.
- Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, kadete mutilak: Bide Bide TAKE - Oarso eta TAKE To-var - Hernani; junior mutilak: TAKE - Aloña Mendi.
- Usabalgo goiko kantuan, 16:00etan, juniorrak: TAKE Orbela - ISB; seniorrak: TAKE Orbela - Easo Berri.
- Usabalgo goiko kantuan, 18:00etan: Bide Bide Ibiza - Arrasate.

Bihar, igandea

Eskubaloia

- Usabalgo goiko kantuan, infantil mailako partida, 11:00etan: Tolosa - Egia.
- Usabalgo beheko kantuan, Gi-puzkoako Eskubaloia Federakuntza izango da 10:30etik 13:00etara.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, emakume kadeteak, F-11, 15:30ean: Tolosa CF - Oiartzun.
- Usabalgo futbol zelaian, emakume seniorrak, F-11, 17:30ean: Tolosa CF - Eibar.
- Usabalgo futbol zelaian, alebin mailako partida, 10:00etan: Tolosa CF - Antigua.
- Berazubiko zelaian, gazteen nazional mailako partida, 16:30ean: Tolosa CF - Peña Athl. Santurtzi.

Iragarki laburrak

LANA

- **Sukaldaria.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogle bezala lan egingo nuke. Esperientziaduna. 662 49 40 78.

E **Elkarrizketa****XABIER ARTOLA ZUBILLAGA** ▶ Irakaslea

E.MAIZ

«Konfiantza faltagatik hasi nintzen idatzitakoak lehiaketetara bidaltzen»

Alkiza » Euskarazko ipuin lehiaketan Donostia Hiria Saria eskuratu du. Saria maiatzean jasoko da eta bere 'Deception Island' ipuina Alberdaniak argitaratu izango da.

ENERITZ MAIZ

Xabier Artola Zubillaga (Donostia, 1957) Alkizan bizi da eta Euskarazko Ipuin lehiaketa sailean Donostia Hiria Saria eskuratu berri du. *Deception Island* izenburua jarri dion ipuina aurkeztu zuen eta Miren Azkarate, Iñaki Aldekoa, Jon Kortazar, Enkami Genua eta Maria Jose Olaziregik osatutako epaimahaiak, 46 ipuinetatik, alkizarrena aukeratu zuten.

Donostia Hiria Saria irabazi duzu ipuin lehiaketa sailean. Espero zenuen ala ezustekoa izan da?

Nik uste dut honelako lehiaketa batean beti ezustekoa dela. Konfiantza banuen egindako lanarekin baina badakit oso zaila dela hainbeste lanen artean zurea aukeratzeko epaimahai batek, ez da erraza. Beti da sorpresa eta sorpresa ona noski.

Epaimahaiak ere ez zen edozein.

Bai bai, lagun batek esan zidan bezala, luxuzkoa.

Aurkeztu duzun ipuina 'Deception Island' izan da. Zer kontatzen duzu bertan?

Idea benetako gertakizun batetik etorri zitzaidan. Mendizale bat, eta oker ez banagon nafarraren. Himalaian aurkitzen zen eta oso larri zegoen eta Iruñeko ospitaletik lagundu ziotela uste dut eta niri bi

personaren arteko harremana kontatzeko eszenatokia asko gusatu zitzaidan. Mendizalea hil zorian dago Himalaian eta bere neskalaguna medikua da eta hemengo ospitaletik, telefono bidez lagundu nahian dago. Eta benetan kontatzen dena harremana da eta harreman baten bukaera zehatzago esanda.

Euskaraz idatzi duzu ipuina eta zer dela eta izenburu hori?

Izenburua egia esan bukaera alde-erorri zitzaidan eta kasualitate batez. Hasiera batean hain argi ez banuen ere, ipuina idatzi ahala konturatu nintzen, dezepzioa, desengainuen sentimenduetan ari

«Izenburua Joseba Sarrionaindiaren 'Lagun Izoztua' liburuko aipu batetik hartu nuen»

nintzela sakontzen eta Joseba Sarrionaindiaren liburu batean aipu bat aurkitu nuen, non esaten duen «lehorra izango da eta izena izango du Deception Island». *Lagun Izoztua* liburuan dago eta berak, Antartika aldeko irla baten izena da eta iruditu zitzaidan oso ongi zetorkiola metafora moduan edo ni kontatzen ari nintzen istorioari. Dezepzio hitza agertzen zen eta horregatik jarri nion izenburu hori.

Irabazle zara baina sari banaketa maiatzean izango da eta gainera zure ipuina argitaratu izango da. Ilusioa egingo du ezta?

Bai bai noski. Eta aurten gainera uste dut alberdaniak argitaratu izango dela beraz irakurleen alde-

tik agian zerbait iristeko esperantza edo. Beste lehiaketa batzuk irabazi ditut ere eta batzuk argitaratu dira baina inoiz ez naiz publikoa zabalarengana iritsi eta aukera bat izan daiteke. Ez dut mundu hau gehiegi ezagutzen eta esperientzi berri bat izango da.

Donostia Hiria Sarian parte hartzen duzun lehen aldia izan da?

Bai parte hartu izan dut baina bitan gertatu izan zait beste lehiaketa-zen batera ere bidali eta aurretik, irabazle suertatu edo sariren bat eskuratu izana. Bat gogoan dut, Billoko Gabriel Aresti lehiaketan izan zen eta gero nik bidalitakoa erretritzeko, Donostiakora deitu behar izan nuen.

Noiztik edo nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Zaletasuna betidanik izan dut. Baina orain dela 10-12 urte hasi nintzen, ea idazten nuenak balio zuen edo ez jakiteko honelakoetara bidaltzen. Eta epaimahaiak aukeratzeko badu pentsatzen duzu idazten duenak zerbait balio duela.

«Bilduma berez osatua daukat baina berrirakurri eta zuzenketak egitea falta zait»

Konfiantza falta horregatik bidaltzen hasi nintzen eta zortea izan dut eta bidali izan ditudan gehienek sariren bat jaso dute.

Inoiz pentsatu duzu libururen bat idaztea?

Egia esan material asko asko ere ez daukat, agian orain edukiko nuke libururik bat osatzeko. Orain dela bizipahiru urte editore batek esan zi-

dan bidaltzeko eta irakurriko zituela eta esango zidala zer iruditzen zitzaion. Hasi ere egin nintzen bilduma bat osatzen, baina gero ez dakit alferkeria edo, eta ez dut bukatu. Bilduma berez osatuta daukat baina guztia berrirakurri eta zuzenketak egin nahi nituen zeren inoiz ez naiz gustura gelditzen egindakoarekin. Eta hor daukat baina agian orain da momentua zerbait egiteko.

Zein estilotan idazten duzu?

Serio esateko ipuinak idazten ditut. Poesia idazten badut oso modu pertsonalean da. Ohar asko jasotzen ditut eta entzuten ditudan iritzi edota irudipenak idatzi egiten

«Zerbait idatzia baldin badaukat, orduan hasten naiz lehiaketarik baden begiratzeko»

ditut. Baina ipuinak dira, narrazio ez oso laburrak, genero hori asko gustatzen zait.

Beste ipuinik edo baduzu orain esku artean?

Asmoa hori, ipuin sorta hori hartu eta ea ahalegin txiki batekin berriz berrirakurtzen hasten naizen. Gero badut zer edo zer kaxoian utzita baina beste berririk ez.

Eta beste lehiaketaren batean parte hartzeko asmorik?

Ez. Oraingo, ez. Nik lehiaketetan, zerbait idatzia daukadanean hasten naiz begiratzeko lehiaketarik baden bidali ahal izateko. Honelako sariak jarraitzeko indarra ematen dute.

Defentsa pertsonalerako ikastaroan izena emateko azken eguna hilak 15

Gizartea » Aduna, Alkiza edo Larraulen izango da eta gutxienez 10 laguneko taldea osatu beharko da.

E. MAIZ

Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateak defentsa pertsonalerako ikastaroa antolatu du hilaren 27 eta 28rako. 10:00etatik 13:00etara izango da eta irakaslea Jokin Aizpurua izango da.

Ikastaro hau, autodefentsarako oinarrizko teknikak ezagutu nahi dituen edozeinentzat izango da eta praktikoa eta errealista izango da. Eraso arruntei aurre egiteko erabiltzea errazak diren teknikak erakutsiko dira.

Izena emateko azken eguna etzi, astelehena, izango da eta Aiztondo bulegoko 943-69 39 30 telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroaren kostua 35 eurokoa da eta gutxienez 10 laguneko taldea osatu beharko da. Osatutako taldearen arabera, Aduna, Alkiza edota Larraulen egingo da.

Laburrak

'Lila la princesa hada' eta 'Up in the air' filmak

VILLABONA » Gaur, hilak 13, 17:00etan *Lily la princesa hada* filma eskainiko dute eta 19:30ean eta 22:30ean aldiz, *Up in the air* ikusteko aukera izango da. Igan dean berriz, 17:00etatik aurrera, *Lily la princesa hada* eta 19:30ean *Up in the air* filmak eskainiko dituzte. Ohi bezala, astelehena, hilak 15, ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean *Up in the air* filma izango da ikusgai Gurea Zinemaren.

Festak antolatzeko bilera asteartean 18:00etan

ANOETA » Herriko festak antolatzen hasiak dira Anoetan eta hurrengo bilera, hilaren 16ean izango da. 18:00etan udaletxean elkartzeko dira eta herriko talde guztiei eta oro har herritarrei dei egiten diete parte hartzera.

May Gorostiagaren 'iPresente!' lana Topic-en

TOLOSA » May Gorostiagak *iPresente!* lan berria aurkeztuko du Tolosako Topic-en. Martxoaren 18an izango da eta 20:30ean hasiko da saioa. Emanaldia ikusi nahi duenak, dagoeneko sarrerak eskuragai ditu www.kutxa.net helbidean.

'Babiloniari' buruzko solasaldia Juan Mari Irigoien idazlearekin

Amezketak » Irakurketa Taldeak gonbidatu du idazlea eta etzi izango da solasaldia, 19:00etan, liburutegian.

ERREDAKZIOA

Herrian sortu den Irakurketa Taldeak gonbidatuta, Juan Mari Irigoien idazlea etzi izango da liburutegian *Babilobia* bere liburuen inguruan hitz egiteko. Saioa 19:00etan izango da. Irakurketa Taldeak herritar guztiei gon-

bidapena luzatu nahi diete beraiekin batera parte hartzeko.

Taldea 2008an sortu zen eta Xabier Mendigurenen aholkularitzaren laguntzaz orain arteko ibilbidea egin dute. Hilean behin, urtero urtarrilean hasi eta maiatza-ekaina bitartean, aurretik adostutako liburua irakurri ondoren, liburuari buruzko solasaldia egin biltzen dira. Bilera hauetan idazlea bertan izan dute batzuetan. Hala, besteak beste, Amezketara joan dira Karlos Linazasoro, Laura Mintegi, Kaitixa Agirre, Kirmen Uribe eta Uxue Alberdi.



Uxue Alberdi Amezketan izan da Irakurketa Taldeak gonbidatuta. HITZA

Erremonteko pilotariak greban daude eta ohiko jaialdiak ez dira egiten ari

ERREDAKZIOA

Erremonte profesionala kudeatzen duten Galarreta enpresako pilotariak eta langileak greban daude lehen aldiz historian. Beraz, ohiko jaialdiak geldituta daude. Gaur bertan prentsa agerraldia egingo dute pilotariak eta langileek grebaren zergatia azaltzeko. Eskualdeko lau pilotari daude egun profesionaletan: Zeberio II.a, Aizpurua II.a, Altuna II.a eta Iñaki Agirre *Gaztelu*.

Dirudienez, Galarreta frontoia kudeatzeko eskaintza egin du Maxi Samper enpresariak, baina Galarreta enpresako arduradunek ez dute negoziatzeko asmorik azaldu, pilotariak diotenez.

Etziko batzorde-bileran udal aurrekontuak izango dituzte hizpide

ERREDAKZIOA

Hirigintza/Obra, Kultura, Inguruena eta Kontuen batzorde bereziaren bilera izango dute etzi Amezketan, astelehena, 20:30ean udaletxeako pleno aretoan. Bertan haibat gai jorratuko dituzte, tartean, udal aurrekontuak.

Batzorde bereziaren bilera horretan jorratuko dituzten beste gaiak ondorengoak izango dira: obra txikiak; hirigintza kontsultak/informazioa; Julian Sagastu-meren segregazio baimen eskaera; Olako industrialdeko helegiteen erantzuna; 2010eko Plan E-erako proiektua onartzea; Isidro Deunaren inguruko kultur astearen egitaraua; eta haurtxokoaren eskaera.



Euskal hezkuntza aldarrikatu dute

TOLOSA » Ikaslea Abertzaleak deituta geldialdiak egin zituzten atzo, 12:00etan, eskualdeko eskoletan, euskal hezkuntzaren alde. Ondoren, Tolosako Triangulo plazatik abiatuta manifestazioa egin zuten *Euskal Herriak bere eskola* lelopean. Geldialdia «oso jendetsua» izan zela adierazi dute Ikasle Abertzaleak eta mani-

festazioan «170 lagun» bildu zirela. «Tolosaldeko gazteriak argi erakutsi du euskal hezkuntza baten alde dagoela eta horretarako borrokatuko duela», azaldu dute. Bestalde, gogorarazi dute gaur Bilbon 17:30ean manifestazioa izango dela «Euskal Hezkuntza baten alde». I. GARCIA

Udaberri Txapelketako finala jokoan

ERREDAKZIOA

Udaberri Txapelketaren baitan, nagusien 3. mailako finalaurrea jokatuko dute Intxurreko bi taldek. Gaur izango da partida, Ikaztegi-tako frontoian, 16:00etan, eta Intxurre 1 (Asier Alonso-Iñaki Olano) eta Intxurre 2 (Xabat Iburguren-Iñaki Erasquin) ariko dira elkarren aurka.

Bestalde, Gorka Altuna eta Aratz Irazustabarrena Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketako finalaurreetarako sailkatu dira, alebin mailan, sailkapen fasean bere multzoko partida guztiak

irabazita. Azkena, aurreko larunbatean Andoaingo Gaztelekuko pilotarien aurka (16-9). Maila berean, Jon Luzuriagak eta Aitor Muruak irabazi egin zuten (16-14) aurreko larunbatean, Azkoitian, baina ez dute sailkatzea lortu.

Iñaki Artola txapeldun

Intxurretik Iñaki Artola Euskal Herriko txapeldun alegiarra goraitu dute: «Txapelketa bikaina jokatuta eta egoera zaileri aurre egin behar izan die finalera heldu aurretik ere. Pilotarako gaitasun berezia duela argi utzi du».



Iñaki Artola. HITZA



Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Urika kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gubirik ezagutzen zuten datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Inigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

eskaintza berezia

BERRIaren eskutik

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

www.berria.info

harpidetza@berria.info

943-30 43 45

Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ **berria**

Nafarroan euskara zerbitzuak «kolokan» daudela salatu dute ezker abertzaleko alkateek

Leitza » Xabier Zabalo herriko alkateak Euskararen Legea salatu zuen, honen xedea euskara «zokoratzea» delako.

NAIARA ELOLA (BERRIA)

Nafarroako ezker abertzaleko alkateak, tartean Leitza alkate den Xabier Zabalo, agerraldia egin zuten herenegun Iruñean, egun foru erkidegoan euskarak duen «zapalkuntza» salatuz. Horien irudiko, Nafarroan euskarak bizi eta pairatzen duen egoera «larria, kezagarria eta estua da». Era berean, udaletako euskara zerbitzuak dute egoeraz ohartarazi zuten, berriz ere. Zabaloren iritziz, udaletako euskara zerbitzuak egiteko «kolokan» egon liteke hementik gutxi, «Gobernuaren etengabeko diru laguntza murrizketak direla eta». Azken urteetan,



Leitza alkate Xabier Zabalo (mahaian) ezker abertzaleko beste ordezkari batzuren artean. IÑIGO URIZ-ARGAZKI PRESS

Nafarroako Gobernuak euskara zerbitzuetara bideratzen zuen diru laguntza apurka-apurka murriztu joan da. Orain urte batzuk, 700.000 euro inguru jasotzen zizuten euskara zerbitzuak, ondoren 500.000 eurora murriztu zen laguntza. Aurtun, ordea, Gobernuak 250.000 euro baino gutxiago bideratuko dituela ohartarazi

zuen Zabalo. «Udaletako euskara zerbitzuen zailtasun eta muga ekonomikoek, ezinbestean, haien jardunari eta lanari kalte egiten diete». Argitu zuenez, udalek gero eta karga ekonomiko handiagoa dute beren gain. Borondatea bada- goen arren, zerbitzu hori ez dela bideragarria aitortu zuten hautes- siek.

Era berean, Leitza alkateak gogor kritikatu zuen 1986. urteko indarrean den Euskararen Legea: «nafarreko euskaraz bizitzeko eta ikasteko dugun eskubidea zehaztu eta mugatu egiten du». Arrazoi horregatik Nafarroako euskal hiztunak «benetan» babestuko dituen hizkuntza politika aldarririkatu zuen. Izan ere, Euskararen Legeak euskarari «trabak» besterik ez dizkiola jartzen ohartarazi zuen. Josu Irazoki Berako alkatearen irudiko, egungo hizkuntza politikak euskararen transmisiorako eta garapenerako «ez ditu nahikoa bitarteko», eta gainera jendartearen nahien kontra egiten du. Argudio hori ardatz hartuta, Zabalo euskara «benetan» sustatuko duen hizkuntza politika berri baten beharra aldarrikatu zuen. Euskararen Legearen ondorio zuzenak hezkuntza sisteman antzematen dira ezker abertzaleko kideen iritziz. Ildo horretan, eremu ez euskaldunetako

eskola publikoetan ezin dela Dere- duan ikasi salatu zuten, «gurasaok haurrak ikastoletan matrikulatzera behartuz».

Uman irtenbidea

Ezker abertzaleko alkateen irudi- ko, oztopoak oztopo, egin dute bide propioa: «Uema bitarteko egokia da gure herrietan eta es- kualdeetan euskaraz bizitzeko eta euskara gure lan eta zerbitzu hiz- kuntza izan dadin».

Gaur egun, Nafarroako hamabi herri dira Uema Udalerri Euskal- dunen Mankomunitateko kide. Zabalo jakinarazi zuenez, bada- de beste herri asko baldintzak bete arren Ueman ez daudenak, Arano, Ergoiena, Baztan, Betelu, Eratsun, Ituren, Zugarramurdi edota Urda- zubi, besteak beste. Hala, herri ho- rietako alkateei Uemako kide iza- teko gonbita egin zieten ezker abertzaleko hautetsiek herenegu- neko agerraldian.

Udalak argiztapena aldatzeko eta udaletxea berritzeko asmoa du

Ibarra » Lanbide eta Tokian Tokiko Jasangarritasunerako Fondoko 464.645 euroekin egingo du.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak guztira 464.645 euro jasoko ditu Lanbide eta Tokian Tokiko Jasangarritasunerako Estatu Fondotik eta energia aurreztearekin eta gastu korrontea murriztearekin lotutako proiektuetan inbertituko ditu. Zehazki, «aurreikusita dago energia kontsumoa murrizteko argiztapen publiko aldatzea, hezkuntza zenbait hobekuntza burutzea eta udaletxea berritzea», argitu dute.

Euskal Herria kaleko 1. eta 41. zenbakien arteko eta Txumintxa-

rainoko argiztapena aldatzeko lanak hasi dituzte jada, bidearen bi aldeetara. «Ekintza honen helburua 2006. eta 2007. urteen artean Aranzadi eta Cademek eginiko ikuskaritzan energia kontsumoa murrizteko esandakora egokitzea da», argitu dute.

Udal eraikinak

Ibarrako Udalaren asmoa ekintza hau udal eraikinetara ere hedatzea da, horrela «energia gehiago aurrezteko». «Horretarako proposamen bat aurkeztu dio Lanbide eta Tokian Tokiko Jasangarritasunerako Estatu Fondoari baina oraindik ez da erantzunik jaso. Planteamenduaren funtsa, udaletxeko, Uzturpe ikastolako, Kiroldegiko eta Kultur Etxeko argiztapena aldatzea da. Proiektu honen idazketak dagoeneko Arrese Igor Ingenie-

ria enpresari esleitu zaio, 17.750 euroko zenbatekoarekin (BEZ gabe)», argitu dute.

Bulegoak birgaitzea

Laguntzen Estatu Planera aurkeztu eta baiezko erantzuna jaso duen beste proiektuetako bat udaletxea berritzea jasotzen duena izan da. «Lan hauen funtsa eraikin barruko bulegoak birgaitzea da, dituzten baldintzak hobetze aldera. Era berean, proiektuak, informatika- ekipamendua modernizatzea jasotzen du eta baita telefonoen gunean behar berrietara egokitzeko aldaketa bat egitea». Jasotze duten dirutik 93.115 euro gastu korrontera bideratuko dituzte, Ibarrrako kasuan, kopuru hori, Hezkuntzako udal sailaren hainbat ekintza finantzatzeko erabiliko dela nabarmendu dute.



Mundu Martxari ongietorria

LEITZA • Tolosa atzean utzita Leitza iritsi zen atzo Emakumeen Mundu Martxa. Hori dela eta, ekitaldi ugari izan ziren herrian; arratsaldean txokolatada izan zuten eta murala ere margotu zuten plazan. Jeiki Abesbatzak, herriko dantzariak eta bertsolariak egin zioten iluntzean ongietorria Martxari. Ondoren, afaria egin zuten Atekabelta gaztetxean. I.GARCIA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Tolosaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak edo ikasleak behar ditu lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

PINKI ETA BOP ▶ Peachy Joke taldeko baxu-jotzailea eta bateria-jotzailea

Musika » Musika dantzagarriagoarekin bueltatu dira Peachy Joke taldekoak 'Kindergarten's Flight' diskoarekin.

REBEKA CALVO

Grey Reville lanarekin laukote ziren eta otsailaren 27an kaleratutako diskoarekin, berriaz, boskote dira. Ez da aldaketa bakarra, hala ere, zuzenekoak indartu dituzte, orain «talde helduagoa» osatzen dute eta Bartzelonan finkatu dira. Diskoa FNAC eta TIPO dendetan erosi daiteke, eta baita denda txikitari ere eskatuz gero. Gaur bertan, 01:00etan, Tolosako Beotibar frontoian aurkeztuko dute Tolosako hiru ikastetxeetako 2. Batxilergoko ikasleek antolatutako Trabeling Jairen baitan.

'Kindergarten's Flight' lana zuzenekoetara bideratutakoa dela eta bertan bildutako abestiak dantzagarriagoak direla diozue. Nahita egin duzuen zerbait al da?

Bai. Hala ere, esan behar da entseguetan inprobisatzen ari ginela atera direla kanta gehienak eta horrek ematen dio zuzenekoetarako indarra eta freskotasuna.

Zein da aurreko diskoarekiko, 'Grey Reville'rekiko, desberdintasun nagusia? Zer aurkituko du entzuleak?

Lehen diskoan gaztetasuna nabarmentzen da eta oraingoan entzuleak talde helduago bat ikusiko du. Kanta eta ideia landuagoak eskaintzen ditugu orain.

Diskoa El Columpio Asesino eta Delorean taldeekin lan egin izan duen Hans Krugeren laguntzarekin kaleratu duzue. Zein jende gehiagok hartu du parte?

Diskoa Subitzako (Nafarroa) Montreal Studio etxean grabatu genuen, Hans Krugeren studioan, alegia. 2009ko iraile arte kontzertuetan izan ginen eta bi astetan zehar grabaketa prestatu ondoren, urriaren zehar izan ginen estudioan diskoarekin lanean. Ez dugu beste inoren parte-hartzerik izan, ez zen posible izan.

Gazteak izan arren, 60. eta 70. hamarkadako rock & rollera jotzen duzue, zer du musika horrek beste



HITZA

«Inprobisatzen ari ginela atera dira diskoko kantu gehienak»

musika batzuek ez dutenik?

Gazteak ginenetik etxean izan ditugun diskoak gure gurasoenak izan dira. AC/DC, Pink Floyd, TRex eta antzekoak. Behar bada horregatik izango da...

Oraindik ere, The Who, David Bowie, Soungarden edo Led Zeppelin bezalako taldeak ekartzen dituzue gogora, baina disko honekin nabaritzen da berrikuntzarik, nahita egindako zerbait izan al da?

Noski. Estilo zaharra darabilgu baina gaur egungo soinuarekin. Honek ere lotura du beste honekin; kontzertu mordoan ostein kanta dantzagarriagoak egitea errazagoa dela konturatu gara, alegia.

Nolakoa izan zen diskorako kantak aukeratzeko prozesua? Eta nolakoa da, orokorrean, kantak egiteko jarraitzen duzun bidea?
Entseguetan, adibidez, Ibanek (Lemy) etxean konposatutako kanten bat ekartzen duenean eta besteok gure konponketa musikalak gehitzean sortzen da Peachy Joken soinua. Estudioan grabatu-

tako kantak entzutean aukeratzen eta pentsatzen dugu zeintzuk ditugun egokiagoak hurrengo diskoan grabatzeko. Oreak mantentzen saiatzen gara.

Zein kanta nabarmenduko zenituzkete diskotik?
Disko osoa gomendatuko genuke, zeren eta 11 kantak dira gure izaeraren zati. 37 minutu besterik ez dira, gainera. Taldea hobekien definitzen duen kanta, hala ere, *Unreal Woman* da.

Gaur bertan Tolosan joko duzue, normalean kanpoan jotzen duzue, Lyon eta Saint Etienne bezalako herrietatik zatozte, urduria gongo al zarete etxean?

Ez dugu horrelakorik espero, baina beti izaten da urduritasuna kontzertu bat hasi aurretik. Etxean jotzeak, hala ere, poza ematen du beti, ez baita oso erreza Tolosan kontzertuak lortzea -algara artean-. Tolosan Kafe Antzoki bat faltan botatzen dugu.

Bartzelonan finkatu zareten arte taldekide bakoitza punta batean egon da eta, ondorioz, ezin izaten zenuten gehiago entseatu... zaila

izan al da denak diskoa prestatu ahal izateko biltzea?

Denok ezagutzen ditugu kantak eta bakoitzak berea landu du. Ondoren, estudioara joan aurretik izaten ditugun entseguetan lehen grabaketa egin dugu. Produktzio lanak egiterakoan erabakitzen dugu zein edota nolako zatiak jarriko ditugun.

Nolatan erabaki zenuten Bartzelonan finkatzea?

Denbora dezente horretaz pentsatu ondoren, lan berria Bartzelonan aurkezteko erabaki genuen. Jendeak animoak eman dizkigu eta, horri esker, aldaketak ideia eta esperientzia berriak ekarriko dizkigula pentsatu dugu.

Metaforaz betetako letrak bildu zenituzten aurreko lanean, honakoa ere ildo bera jarraitu al duzue?

Bai. Iban (Lemy) da kantuak egiten dituen eta gure egunerokoak hitz egiten du baliabide estilistikoak erabilita.

Behin lan guztia eginda (kantuak prestatu, moldatu, grabatu...), zein inpresio izan zenuten diskoak patxadaz entzuteko aukera izan zenutenean?

Lehenengo, harrotasun sentsazioa izan genuen, batetik egindako lanarengatik eta emaitzarengatik, bestetik. Diskoa oso erraz entzuten da, ez da batera astuna egiten eta hori belarriek ere eskertzen dute. Egia esan, ezin sinestu gabiltza nola atera den diskoa.

Disko honekin batera, bideo klip bat grabatu duzue, nolakoa izan zen esperientzia?

Bideoklipa Laskorain Ikastolan grabatu dugu, 9 eta 10 urteko gaztetxoekin. Oso esperientzia aberasgarria izan zen. Lan asko egin genuen, baina azkenik dena ondo joan zen, bai gure lanari dagokionez, eta baita gaztetxoek dagokionez ere. Bideoklipa egiteko laguntza eman diguten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.



U Urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel. 943-65 56 95

V. urtemuga
JOAKIN BALERDI ERAUSKIN



Beti gogoan

Etxeokak

TOLOSAN
2010eko
martxoaren 13an

III. urteurrena
**JULI KARRERA
AGIRREBARRENA**



Ez zara erabat joan, gurekin segitzen baitu, beti, zure barruaren islada, izan den eta den, zure irribarre goxoak.

Zure sendia

AMEZKETAN
2010eko
martxoaren 13an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Ahoz Aho Jaialdia: Bonberenean gaur 11:30ean *Kandelen argipean* euskaraz eta San Esteban auzoan 19:30ean Ana Cristina Herreros.

Zinema

■ **Tolosa.** *La carretera* filma Leidor aretoan gaur 22:30ean eta bihar 19:30ean eta 22:00etan.

Aisialdia

■ **Villabona.** Emakumearen Eguna dela eta, triki poteoa gaur 12:00etan Berdura Plazatik abiatuta, ondoren bazkaria eta dantzaldia Zizurkilgo Olentzo Jatetxean 14:30etik aurrera. Bazkaria joan nahi duenak 16 euro ordaindu beharko ditu.

Musika

■ **Tolosa.** Estricalla eta Freak Kennedys taldeen kontzertua Bonberenean gaur 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 43. 112.

TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. 28 klip. **10:30.** Ilunpean.
11:00. Otaegi Txikon apustua.
11:30. Tolosaldean Gaur. **12:00.** Ikusten. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Nonochan. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** On ein!
15:00. Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Eskuokin.
(*12:30etik 16:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Saharan ere 'Egunkaria auzia' gogoan

ELKARTASUNA ■ *Egunkaria* auziaren epaiaren zain gauden honetan elkartasun ekitaldiak ari dira biderkatzen, bai Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere. Irudian ikusi daitekeen bezala pasa den otsailaren 22an izandako Saharako Maratoian euskarazko kazeta ere izan zuten gogoan.

Egunkaria 2003ko otsailaren itxi zuten, eta ia zoko abenduaren 15ean hasitako epaiketa otsailaren 1ean bukatu zen. Etakide izatea egotzita epaitu zituzten Martxelo Otamendi, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdeai eta Xabier Oleaga. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>